

## **“ALTZAKO HIRI BERRONERATZEKO REAKTIVA-T KOLEKTIBOAK” PROGRAMAREN BAITAKO KONTRATAZIORAKO LAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK, HIRI BERRONERATZE INTEGRALEKO PROIEKTUEI LOTUTAKO GIZARTERATZEKO ETA LANERATZEKO PRESTAKUNTZA-, ENPLEGU-, ORIENTAZIO- ETA LAGUNTZA-PROIEKTUETAN PARTE HARTZEN DUTEN LANGABEEN KONTRATAZIOA SUSTATZEKO, 2022-2024 INBERTSIO ESTRATEGIKOEN PLANAREN BARRUAN (ESP. ZK.: 2022/01258) (A/20220498).**

### ATARIKOA

Donostiako Sustapenak, 2023an, berretsi egin du estrategia berri eta kudeaketa eredu berri baterako trantsizioaren aldeko apustua, Donostiako Berrikuntza Agentziaren zeregina betetzean zentratutako estrategia horren helburua hirian berrikuntza erreferente bihurtzea izanik.

Hori dela eta, pertsoneri, enpresei eta proiektuei lagundu nahi die, arreta pertsonalizatua, kalitatea eta foku estrategikoa eskainita eta hiriko berrikuntza ekosistema osatzen duten hainbat eragile publiko eta pribaturekin elkarlanean egiteko apustu garbia eginda.

Prestakuntza- eta enplegu-ibilbideak sortzeko balio izango duen eredu bat bultzatzea da Donostiako Sustapenaren helburua, eta enpresekin, prestakuntza ematen duten erakundeekin, baita hirugarren sektorearekin ere hitzarmenak sinatzea eta sarean lan egitea funtsezkoak dira eredu horretan.

Tokiko langabezia oraindik ere kalteberatasun handieneko gizataldeetan ematen da batez ere: izan ere, 2024ko apirilko datuen arabera, Donostian 6.849 langabe daude erregistratuta eta desoreka ikus daiteke emakumeen eta gizonezkoen artean (langabetuen % 55,3 emakumeak dira, eta % 44,7, gizonak).

Bestaldetik, datuen azterketaren arabera, langabezian dauden pertsona asko (% 44,6) iraupen luzeko langabezian daudenak dira; adin handiagoko pertsonen artean eta emakumeen artean nabaritzen da bereziki.

Donostiako langabetuen % 59,1 45 urte edo gehiagoko pertsonak dira, % 56,1, emakumeak; gainera, emakumeak langabetuen talde guztietan nagusitzen dira, atzerritarren taldean eta 25 urtetik beherako gazteen artean izan ezik.

Azkenik, datuek tokiko gazteen langabezia nabarmena erakusten dute, batez ere, 25 eta 34 urte bitartekoen artean.

Gauzak horrela, gizatalde horiei guztiei zuzendu behar zaizkie hiriko enplegu mailaren eta biztanleen bizi kalitatearen bilakaera hobetzen jarraitzeko neurriak.

2023an, Donostiako Sustapenak ia 2 milioi euro inbertitu zuen arlo honetan, sektoreko erakunde nagusiekin elkarlanean. 2,564 pertsonarentzat onuragarria izan zen, zerbitzuak bai prestakuntza maila altukoek, bai maila baxuagoa dutenek erabili dituztelako. Parte hartzaile guztien % 70 emakumeak ziren, eta % 71, 45 urtetik gorakoak. 1.697 lanpostu berri sortu ziren, laguntzen hartzaile nagusia den ostalaritzan batez ere, neurri batean, ostalaritza elkartearikiko harreman estuari esker. Gainera, zuzenean diruz lagundu ziren kontratuen % 68 emakumeei, eta % 56, 35 urtetik beherako pertsoneri egindako kontratuak ziren.

Proiektu nabari bat UBAko Aterpetxe Eskolaren kudeaketaren eraldaketa izan zen, enplegurako eta lan berrikuntzarako aukera berriak irekitzen dituena.

Pertsona horien enplegagarritasuna eta lan merkatuan sartzea sustatzen jarraitzeko asmoz, Donostiako Sustapenak Oinarri Arautzaile hauek proposatzen ditu, Eusko Jaurlaritzaren 2022-2024 aldirako Inbertsio Estrategikoen Erakunde arteko Planaren baitako Altzako hiri berroneratze integralerako proiektuari lotuta dagoen **Gizarteratzeko eta Laneratzeko Prestakuntza, Enplegu, Orientazio eta Laguntza** Proiektuaren markoan.

Proiektuaren helburu orokorra Altza auzoko gune kalteberen berroneratze jasangarria sustatzea da, ikuspegi orohartzaile eta diziplina anitzeko batetik, esku hartzeak eraikinetan, hiri inguruan, baita gizartean ere eginez.

Proiektuak barnean hartzen ditu ingurumen, gizarte, ekonomia, hirigintza eta gobernantzari lotutako alderdiak, esku hartzeak auzo kalteberetan eginez; horretarako, susperraldia, eraldaketa eta erresilientzia bultzatzeko eragile den inbertsioaren alde egiten du apustua, horrela, Europar Batasuneko, Espainiako eta autonomia erkidegoko xedapenetan eta zuzentarauetan jasotako hiri biziberritzeko betebeharreri erantzuna emanez. Prestakuntza, enplegu, orientazio eta lagun egitearen arloko jarduerak lagungarriak dira hiriko biztanle kalteberak laneratzeko, kontratazioak Altza auzo osoa berrurbanizatu eta berroneratzeko jarduerekin lotzen direlako; horrela, hobetzen dira eragindako biztanleen gizarte-, enplegu- eta prestakuntza-baldintzak.

Hain zuzen, enpleguaren arloan, lan merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten langabetuei enplegurako bidean laguntzea da helburua; horretarako, laguntza pertsonalizatua, lanerako orientabideak eta zeharkako formakuntza eskaintzen zaizkie, baita fabrika eta estalkietako igeltserotzako lan osagarrietan profesionaltasun ziurtagiriak lortzeko aukera ere. Oinarri Arautzaileak lagungarriak izango dira Donostiako biztanle langabetu aktiboen kontratazioa suspertzeko, diru sarrerak bermatzeko errenta eta/edo bizitzeko **gutxieneko diru sarrera jasotzen dutenei eta iraupen luzeko langabezia daudenei lehentasuna emanez, eraikuntzaren sektorean**. Parte hartzaileek Eusko Jaurlaritzak homologatutako profesionaltasun ziurtagiriak jasoko dituzte, eta lan merkatuan sartzeko aukerak hobetzen dituzten gaitasunak ikasiko dituzte.

## XEDAPEN OROKORRAK

### 1. ARTIKULUA. HELBURUA

Laguntza horien bidez bultzatu nahi da enplegu eskatzaile langabetuak laneratzea, hain zuzen ere, eraikuntzaren sektorean diharduten enpresetan igeltserotza eta margolaritza arloko langile lanpostuak betetzeko, lehentasuna diru sarrerak bermatzeko errenta edo bizitzeko **gutxieneko diru sarrera jasotzen dutenei** eta iraupen luzeko langabetuei emanez.

### 2. ARTIKULUA. BALIABIDE EKONOMIKOAK

Donostiako Sustapenak guztira LAUROGEITA LAU MILA (84.000 €) EURO bideratuko du laguntza horietarako. Donostiako Sustapenak hala erabakiz gero, kopuru hau alda daiteke.

Pertsona onuradun bakoitzeko, gehienez ere hiru laguntza eman ahal izango dira.

### 3. ARTIKULUA. ONURADUNAK

Pertsona onuraduntzat hartuko da dirulaguntza jaso zuen jarduera egin behar duena edo dirulaguntza ematea legitimatzen duen egoeran dagoena, baldin eta Oinarri hauetan jasotako baldintzak betetzen baditu, batez ere, laguntza mota bakoitzari dagozkionak.

Dirulaguntzen onuradun izan daitezke: pertsona fisiko edo juridikoak, publiko zein pribatuak, estatukoak edo atzerrikoak, baita aurrekoen izaerarik ez duten elkarteak ere, behar bezala – ordenamendu juridikoarekin bat– eratuta badaude eta Oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte. Kanpo geratzen dira ondare sozietateak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 14. artikuluan zehaztutakoak.

Oinarri hauetan, dagozkion laguntzak eskatzeko bete behar diren baldintzak eta haiek egiaztatze moduak zehaztuko dira; izan ere, kasu guztietan Dirulaguntzen Lege Orokorren 13. artikuluan aurreikusitakoa bete beharko da. Ondorio horietarako, aipatu legea aplikatu behar dela esanbidez adierazten da.

Laguntza ezin izango zaie pertsona fisiko edo juridikoei eman honako kasu hauetan:

- Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga betebeharrak eta/edo Gizarte Segurantzarekikoak betetzen ez badituzte.
- Ebazpen irmo baten bidez dirulaguntza eta/edo laguntza publikoak jaso ahal izateko aukera galtzea dakarren zigorra ezarri bazaie, edota horretarako ezgaitzen duen lege debekua badute, sexuan oinarritutako diskriminazioagatik ezarritakoak barne, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 23.2 artikuluan xedatutakoaren arabera; halaber, ezingo dira onuradun izan dagokion zehapenean ezarritako aldiari sexuagatik bereizkeriagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko araudia ez betetzeagatik administrazioko edo zigor arloko zehapena jaso duten pertsona fisikoak edo onuradunak. Halaber, ezingo dute laguntza eta dirulaguntzarik jaso estatu araudiaren arabera berdintasun plan bat indarrean izan behar duten arren halakorik ez duten enpresek, baita 50 langiletik gora dituzten eta, estatu legeriak emakumeen eta gizonen berdintasunaren esparruan finkatzen duen bezala, sexu jazarpena, sexuan oinarritutako jazarpena eta sexu indarkeriak prebenitzeko edo haien aurka egiteko neurriak ezarri dituztela egiaztatzen ez duten enpresek ere.
- Donostiako Udalarekin eta/edo Donostiako Sustapenarekin zorrak badituzte.
- Lehenago eman zaizkien dirulaguntzak edo horien zati bat oraindik itzuli ez badute, dagokion zenbatekoa itzuli dela egiaztatzen ez den bitartean.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, interesdunek badute eskubidea administrazio jardulearen eskuetan dauden dokumentuak edo beste administrazioren batek egindako agiriak ez aurkezteko. Gainera, administrazio jarduleak agiri horiek kontsultatu edo eskatu ahal izango ditu, interesdunak ez badu desadostasuna adierazi; horrelakoetan, agiriak aurkeztu beharko ditu.

Donostiako Sustapenak, Donostiako Udalaren jabetzakoa den elkarreragingarritasun aplikazioaren bidez, zuzenean kontsultatuko du Administrazio Publiko eskudunetan ondoko

informazioa, prozedura hau ebazteko eta ordainketak egiteko:

- Udalarekiko eta Donostiako Sustapenarekiko zorrak ordainduta daudela egiaztatzen duten ziurtagiriak.
- Foru Ogasunaren zorretan ez egotea egiaztatzen duten ziurtagiriak.
- Ekonomia jardueren gaineko zergaren historia, onuradunari dagokiona.
- Gizarte Segurantzarekin zorretan ez egotea egiaztatzen duten ziurtagiriak.

Dirulaguntza eskatzeko orduan eta ordainketak egiterakoan Udal Zerga Bilketarekin, Foru Ogasunarekin eta/edo Gizarte Segurantzaren zorrak dituzten onuradunek jakinarazpena jaso eta hurrengo HAMAR (10) egun balioduneko epean egiaztatu beharko dute ordainketa horiek egunean dituztela.

#### 4. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUNTZEKO KONTZEPTUAK ETA DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA

"Eraikuntza eta obra zibila" familiako fabrika eta estalkietako igeltserotzako lan osagarrietan 1. mailako profesionaltasun ziurtagiria lortu duen pertsona bat kontratatzen duten enpresek, **"ALTZAKO HIRI BERRONERATZEKO REAKTIVA-T KOLEKTIBOAK" izeneko berariazko proiektuaren baitan**, 1. edo 2. proba pilotuan, gehienez ere **LAU MILA BERREHUN EUROKO (4.200,00 €)** laguntza jaso ahal izango dute lan kontratu bakoitzeko, baldin eta lanaldi osokoa eta gutxienez 3 hilabetekoa bada.

"Eraikuntza eta obra zibila" familiako fabrika eta estalkietako igeltserotzako lan osagarrietan 1. mailako profesionaltasun ziurtagiria lortu duen eta **"ALTZAKO HIRI BERRONERATZEKO REAKTIVA-T KOLEKTIBOAK" izeneko berariazko proiektuan parte hartzen ez duen** pertsona bat kontratatzen duten enpresek gehienez ere **HIRU MILA EUROKO (3.000,00 €)** laguntza jaso ahal izango dute lan kontratu bakoitzeko, baldin eta lanaldi osokoa eta gutxienez 3 hilabetekoa bada.

Dirulaguntzaren behin betiko zenbatekoa ezin izango da kontratatutako pertsonen soldatari eta gizarte segurantzari dagozkion kostuen % 100 baino handiagoa izan, kontratu amaierako kalte ordainak eta Gizarte Segurantzako kuota barne direla, enpresaren kargura, dagozkion hobariak eta/edo kenkariak kenduta.

Diruz lagungarriak diren gastuak kontratuko lehenengo hiru hilabetei dagozkienak izango dira.

#### 5. ARTIKULUA. ONURADUNEK DEIALDI HONETAN PARTE HARTZEKO BETE BEHAR DITUZTEN BALDINTZAK

Deialdian parte har dezaketen onuradunek lantokia eta jarduera ekonomikoa Gipuzkoan duten izaera pribatuko pertsona fisiko edo juridikoak izan beharko dute.

Honako hauek ezingo dira onuradun izan:

- Sektore Publikoko erakundeen (hau da, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa Espainiako ordenamendu juridikora egiten duen Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 3. artikuluan jasota daudenen), irabazi asmorik gabeko erakundeen, ondare sozietate eta/edo profesionalen elkargoen menpe dauden erakundeak, ezta aipatutako horietan % 25etik gorako partaidetza duten erakundeak ere.
- Aldi baterako laneko enpresak.

## 6. ARTIKULUA. KONTRATATUTAKO PERTSONEK ETA DIRUZ LAGUNTZEKO KONTRATUEK BETE BEHAR DITUZTEN BALDINTZAK

Kontratutako pertsonak honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Kontratutakoak langabeak izango dira, eta Lanbide-EEZn (Euskal Enplegu Zerbitzua) enplegu eskatzaile gisa izena emanda egon behar dute. Izena emateko eguna lan harremana hasteko eguna baino lehenagokoa izango da. Ez dira kontuan hartuko – baldintza hori betetzen dela esateko– Lanbiden "zerbitzuen eskatzaile gisa" izena emanda dauden pertsonak.
- b) Langabetuak ezin dira egon Gizarte Segurantzako erregimenetako batean langile gisa izena emanda, gutxienez lan harremana hasi aurreko egunetik aurrera.
- c) Kontratutako pertsonak, kontratazioa hasi aurreko datan eta, gutxienez, lan harremana hasi aurreko egunean, **Donostian erroldatuta egon behar dute**. Gutxienez, lan harremana hasten den egunean eta aurre-aurrekoan erroldatzea frogatzen dutenak bakarrik izango dira onargarriak. Erroldatzeari dagokionez, Gipuzkoako Sozietateen gaineko Zergaren inguruko urtarilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 42. artikuluan aurreikusitako baldintzetan, erakunde kontratatzailearekin (pertsona onuraduna) edo beste edozein erakunderekin artikulua horretan ezarritakoaren arabera lotuta dagoen pertsona fisiko batena ez den helbide batean izan behar da. Era berean, baldintza hori betetzen dela esateko, ez dira kontuan izango kontratatuko den pertsonak Donostiako hirian lehenago izan zituen erroldatzeak, baldin eta eten badira, edozein arrazoi dela medio.

Lan **kontratazioek** honako baldintza hauek bete beharko dituzte, dirulaguntza jasotzeko aukera izan dezaten:

- a) Lan kontratuaren hasiera data 2024ko abuztuaren 12tik **2024ko abuztuaren 31ra** bitartekoa izango da.
  - b) Kontratutako pertsonak Gipuzkoan kokatutako obretan lan egin beharko dute.
  - c) Kontratazioak gutxienez 3 hilabetekoak eta lanaldi osokoak izango dira.
  - d) Kontratazioa diruz lagundutako denboraldian eta lanaldiarekin mantendu beharko da.
- Salbuespen gisa, lan harremana dirulaguntzaren xedeko denboraldia bukatu baino lehenago amaitzen bada, arrazoi objektiboak edo enplegatzailearekin zerikusirik ez

dutenak direla medio, dirulaguntzaren zenbatekoa jaitsi egingo da lan kontratuaren benetako iraupenaren arabera proportzioan.

Horrelakoetan, amaierako justifikazioa aurkezteko gehieneko epea egutegiko 30 egunekoa izango da, dirulaguntzaren xede den kontratua amaitzen denetik.

Kontratua behar baino lehenago amaitzen bada, 11. artikuluan zehaztutako dokumentazioaz gain, dirulaguntza justifikatzeko, onuradunak honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

- Baja arrazoiaren ziurtagiria, Gizarte Segurantzarena.

Donostiako Sustapenak lan harremana behar baino lehenago amaitzea justifikatzeko behar den dokumentazio osagarria eskatu ahal izango du.

**Ez dira diruz laguntzeko modukoak** honako kontratazio hauek:

- Ez da onartuko kontratuak batzea edo metatzea. Dirulaguntzaren xede den laguntza bakoitzeko kontratu bakarra onartuko da.
- Dirulaguntza eskatu eta gero egindako kontratuen luzapenak ez dira onartuko.
- Lanaldiaren aldaketa izan duten kontratuak.

## 7. ARTIKULUA. BESTE LAGUNTZA BATZUEKIKO BATERAGARRITASUNA

Laguntza horiek ez dira bateragarriak izango administrazio batek edo erakunde publiko edo pribatu batek (estatuko, Europar Batasuneko edo nazioartekoak) helburu eta aldi berbererako emandako beste laguntza batzuekin. Edonola ere, bateragarriak izango dira Gizarte Segurantzako kuoten hobariekin edo murriztapenekin, indarrean dagoen legediaren arabera halakorik balego.

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzek Batzordearen 2023ko abenduaren 13ko 2023/2831 Erregelamenduan (EB) ezarritako *de minimis* arauak beteko dituzte. Aipatutako araudia Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Itunaren 107. eta 108. artikulua *de minimis* laguntzei aplikatzeari buruzkoa da, eta Europar Batasunaren Egunkari Ofizialaren 2023ko abenduaren 15eko zenbakian argitaratu zen.

Jasotako dirulaguntzaren zenbatekoak, Oinarri hauetan adierazitakoarekin bat, inoiz ez du gaindituko diruz lagundutako jardueraren kostua.

## 8. ARTIKULUA. ESKAERAK ETA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

**Eskaerak aurkezteko epea** Oinarri hauei buruzko iragarkia Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean eta Oinarrien laburpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO) argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta baliabide ekonomikoak agortu arte iraungo du, Oinarri hauen 2. artikulua arabera (kasu horretan, baliabideak agortu izanaren berri Donostiako Sustapenaren webgunean emango da); bestela, deialdia itxi arte iraungo du, hots, **2024ko irailaren 30era arte**.

Eskaerak aurkezteko epea amaituta, gerakinik egonez gero edo diru zuzkidura handituz gero, Donostiako Sustapenak ontzat ematen badu, eskaerak aurkezteko epea luzatu ahal izango da, Oinarri hauek aldatuz (horren berri hedabide egokietan emango da).

Eskaerak bide telematikoz aurkeztu behar izango dira, Donostiako Sustapenaren webgunearen bidez ([www.fomentosansebastian.eus](http://www.fomentosansebastian.eus)).

Edozein informazio eskatzeko edo galdera egiteko, 943 482800 telefono zenbakia edo [fomentoss@donostia.eus](mailto:fomentoss@donostia.eus) helbide elektronikoa erabil daiteke, gaian honako hau jarrita: KONTRATAZIORAKO LAGUNTZAK, ENPLEGU ETA PRESTAKUNTZA IBILBIDEEI LOTURIKOAK-2023.

Dagokion eskabide orriari Oinarri hauetan eskatzen den dokumentazio osoa erantsiko zaio.

Eranskinak osorik bete eta behar bezala sinatu beharko dira.

### **Kontratatutako pertsona bakoitzeko eskaera bat egin behar da.**

Dirulaguntza horiek eskatu nahi duten enpresa edo erakundeek honako **dokumentu** hauek aurkeztu beharko dituzte:

1. **"Eskaera" eranskina.**
2. **"Bankuko datuak"** eranskin orria, dagokion banku erakundeak zigitatua, edo banku agiri baliokidea.
3. **"Kontratazioaren datuak"** eranskina.
4. Pertsona fisikoa bada, eskatzailearen NAN agiriaren kopia.
5. Pertsona juridikoa bada, eskatzailearen IFK agiriaren kopia eta, hala badagokio, ahalordedunaren NAN agiria.
6. **Laneko kontratuaren kopia**, honako baldintza hauek egiaztatzea ahalbidetzen duena: iraupena, lanaldia, lantokia, beteko den lanpostua. Mugagabe bihurtutako aldi baterako kontratuen kasuan, aldaketa hori egiaztatzen duen dokumentua ere erantsi beharko da.
7. **Lan kontratuaren komunikazioa**, betetzen den zeregina adierazita.
8. **Kontratatutako pertsonaren NAN/AIZ** agiriaren kopia.
9. Lanbideak kontratazioa hasi ondoren emandako **"Inskripzio epealdien txostena"** izenburuko dokumentua.
10. Gizarte Segurantzak bidalitako **langilearen Lan Bizitza osoaren txostena**, laguntzaren xede den kontratua hasi eta gero emandakoa.
11. Donostiako Udalak igorritako **errolda ziurtagiria**, kontratuaren xede den pertsonaren kontratazio data baino beranduago emandakoa, edo kontratatutako pertsonak Donostiako Sustapenari emandako hura eskatzeko baimena ("Kontratazioaren datuak" eranskinean dago).
12. Dirulaguntzen xede diren eta 6. artikuluan aipatzen diren sektoreetako batean **profesionaltasun ziurtagiria gainditu izanaren egiaztagiria edo titulua**, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak homologatutako lanbide heziketako zentroak emandakoa.

Pertsona interesdunek dokumentu horietako bat lehenago aurkeztu badute Donostiako Sustapenaren programetako batean parte hartzeko, ez da beharrezkoa izango atal honetan eskatzen den dokumentazioa berriro aurkeztea, baldin eta indarrean jarraitzen badu eta datuak aldatu ez badira.

Dirulaguntzaren eskaera aurkezterakoan eta dagozkion ordainketak egiterakoan Udal Zerga Bilketa, Foru Ogasun eta/edo Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzen ez dituzten erakundeek ordainketa horiek egunean dituztela egiaztatu beharko dute; horretarako, Donostiako Sustapenak akatsak zuzentzeko jakinarazpena bidaliko die.

Onuradunak bere gain hartzen du erantzukizun osoa, erantzukizunpeko adierazpenen, emandako informazio osoaren eta aurkezten dituen beste dokumentu guztien egiazkotasunari dagokionez.

## 9. ARTIKULUA. ESKAERETAKO AKATSAK ZUZENTZEA

Donostiako Sustapenak dokumentazio osoa aztertu ondoren bete gabe dagoela edo agiriren bat falta dela egiaztatzen bada, errekerimendua egingo zaio eskatzaileari gehienez ere hamar (10) egun balioduneko epean gabeziak zuzendu edo nahitaezko dokumentuak aurkez ditzan; halaber, jakinaraziko zaio horrela egiten ez badu, eskaera baztertuko dela, izapide gehiagorik gabe eta, ondorioz, ezezko ebazpena emango dela. Gainera, komeni dela jotzen duenean, Donostiako Sustapenak beretzat gordetzen du pertsona edo erakunde eskatzaileak aurkeztutako dokumentuetako bati edo informazioari buruz egoki deritzen azalpen guztiak eskatzeko eskubidea.

Zuzenketak onuradunak harremanetarako e-mail gisa adierazi duen helbide elektronikoaren bidez helaraziko dira. (JAKINARAZPENAK EGITEKO HELBIDE ELEKTRONIKOA). Edozein modutan: jakinarazpenak web aplikazioan ere egongo dira eskuragai eskaera egin duen pertsona edo erakundearen espedientean.

Akatsak zuzentzeko eskatutako dokumentazioa aurkezteko, hasierako eskaera egiteko erabili zen bide bera erabiliko da. Posta elektroniko bidez bidalitako zuzenketak ez dira onartuko.

Laguntza bat emateko edo ukatzeko, Donostiako Sustapenak esanbidezko ebazpen arrazoitua emango du, Oinarri hauetan ezarritako betekizun eta baldintza guzti-guztiak betetzen diren ala ez kontuan hartuta.

## 10. ARTIKULUA. LAGUNTZA IZAPIDETZEA ETA EBAZTEA

Eskaerak erregistroan duten hurrenkerari jarraikiz ebaluatu eta ebatziko dira, baliabide ekonomikoak agortu arte.

Eskatutako dirulaguntzari buruzko ebazpena emateko epea bost hilabetekoa izango da, eskaera erregistratzen den egunetik hasita, administrazioko dokumentazioa zuzentzeko aldiak epe horren barruan kontuan izan gabe; aldi horietan eten egingo dira epeak. Dirulaguntza emateko ebazpena ezarritako epean ematen ez bada, ez du esan nahi dirulaguntza eman denik.

Eskaera ebazte aldera, derrigorrean aurkeztu beharreko dokumentazioa aztertuko du Donostiako Sustapenak. Eskatu gabe aurkezten den bestelako dokumentazio guztia ez da aztertu beharko dirulaguntzari buruzko ebazpena emateko.

Laguntza emateko edo ukatzeko, Donostiako Sustapenak esanbidezko ebazpen arrazoitua emango du, Oinarri hauetan ezarritako betekizun eta baldintza guzti-guztiak betetzen diren ala ez kontuan hartuta.



Ebazpenak helbide elektronikoz jakinaraziko zaizkie eskatzaileei, eskabide orrian "Jakinarazpenetarako helbide elektronikoa" apartatuan adierazitako helbidearen bidez; web aplikazioan ere egongo dira eskuragai, erakunde edo pertsona eskatzaile bakoitzaren espedientean; horrez gain, onuradunen zerrenda argitaratuko da.

Eskatzailea ebazpenarekin ados ez badago, alegazioak aurkeztu ahal izango ditu gehienez ere hilabeteko epean –ebazpena ematen den egunetik aurrera–; Donostiako Sustapenak erabakitakoa bete beharko da, eta, hala beharrez gero, bi aldeak Donostiako epaitegien eta auzitegien jurisdikzioaren mende geratuko dira.

## 11. ARTIKULUA. DIRULAGUNTZAK JUSTIFIKATZEA ETA ORDAINTZEA

Dirulaguntzak ordainketa bakarrean ordainduko dira, diruz lagundutako kontratazioa justifikatu ondoren.

Amaierako justifikazioa aurkezteko epemuga 2024ko abenduaren 10a izango da. Behar baino lehenagoko bajaren kasuan (6. artikuluan deskribatutakoan), amaierako justifikazioa aurkezteko gehieneko epea egutegiko 10 egunekoa izango da, kontratua benetan amaitzen den egunetik.

**Justifikazioa aurkezteko ezarritako epeak bete ezean, laguntza ukatu egingo da.**

Onuradunak honako dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu:

- 1 Kontratatutako pertsonaren "Afiliatuaren lan bizitzaren txostena", eskatutako laguntzari dagokion denboraldian eta eskaeran adierazitako lanaldiarekin enpresan egotea egiaztatzen duena.
- 2 Kontratatutako pertsonaren Kotizazio Datuen Txostena – Soldatuko Langileak (IDC agiria), justifikazio epealdiari dagokiona.
- 3 "**Justifikazioa**" eranskina: finantza txostena diruz laguntzen den aldiaren benetan egindako gastua (nominak eta gizarte segurantzak) laburbiltzen duena, eta helburu bererako beste dirulaguntzarik jaso edo eskatu ez dela esaten duen erantzukizunpeko adierazpena.
- 4 Soldaten, Gizarte Segurantzako kuoten eta dagozkion ordainketen kopia. (Langileak sinatutako soldata agiriek ordainketa egiaztagiriararen baliozkotasuna dute).

Dokumentazioa bide telematikoz aurkeztu beharko da. Posta elektronikoz bidez bidalitako egiaztagiriak ez dira onartuko. Era berean, eranskin guztiak osorik bete beharko dira.

## 12. ARTIKULUA. PERTSONA ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Laguntza horien onuradun diren pertsonak Dirulaguntzen Lege Orokorreko 14. artikuluan jasotako betebeharrak hartuko dituzte bere gain; berriaz ezarritako betebeharrak hauek bete izango dituzte, oro har:

1. Dirulaguntza diruz laguntzen diren jardueretara bideratzea.
2. Diruz laguntzeko moduko gastuak justifikatzeko eskatzen den dokumentazioa aurkeztea, ezarritako moduan eta denboran.

3. Jasotako dirulaguntzak zertan erabili diren egiaztatzen duten dokumentuak gordetzea, horiek guztiak egiaztatu eta/edo kontrolatu baitaitezke; nolana ere, aplikatu beharreko araudian ezarritako epean gordeko dira.
4. Proiektua osatzen duten jardueren gastu eta diru-sarrera guztiak kontabilizatzea.
5. Kontabilitate liburuak behar bezala betetzea, horretara behartuta egonez gero.
6. Egunean izatea zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.
7. Laguntzak emateko kontuan hartutako edozein inguruabar –subjektibo zein objektibo– aldatu baldin bada, Donostiako Sustapenari horren berri ematea.
8. Emandako laguntzei dagokienez, Donostiako Sustapenak bere eginkizunak betetz eskatzen duen informazio guztia ematea.
9. Helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuk jasoz gero, Donostiako Sustapenari horren berri ematea.
10. Jasotako dirulaguntza dela eta Donostiako Sustapenak dei ditzakeen jardunaldietan parte hartzea (proiektuen aurkezpena, jarduerak, emaitzen jarraipena eta abar).
11. Laguntzaren xede den eskaeran aurkeztutako baldintzak aldatzen dituen edozein egoera gertatuz gero, Donostiako Sustapenari jakinaraztea. Donostiako Sustapenari laguntzea, hala badagokio, egin ditzakeen finantza kontroleko eta egiaztapeneko jarduketetan, eta bere esku jartzea eskatzen duen informazio eta dokumentazio guztia.
12. Laguntzaren xede den jarduera gauzatzeko behar diren lizentzia eta baimen guztiak izatea.
13. Oinarri hauetako 3., 5. eta 6. artikuluetan adierazitako baldintzak betetzea.
14. EAEko hizkuntza ofizialen erabilera bermatzea (euskarari lehentasuna emanaz) komunikazio euskarrietan (webgunea, sare sozialak, mailinga, megafonia eta abar), sustapen eta hedapen materialetan, antolatutako jardunaldi eta ekitaldietan eta abarretan.
15. Erakunde eskatzaileek, testuak itzultzeko eta horiek zuzentzeko, Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuaren laguntza eskatu ahal izango dute (hilean gehienez ere 1.000 karaktere itzultzeko eta 9.000 karaktere zuzentzeko), baldin eta zerbitzuaren baldintzak eta ezaugarriak betetzen badira (<http://www.donostiaeuskaraz.eus/euskaraz/dirulaguntzak/lang/eu>).

### 13. ARTIKULUA. DIRULAGUNTZAK ITZULTZEA

Onuraduna den pertsona fisiko edo juridikoak jasotako dirulaguntza –gehi diruaren legezko interesa, zenbatekoak ordaintzen diren unetik sortutakoa– itzuli beharko du, honako kasu hauetako edozein gertatuz gero:

- Oinarri hauetan aurreikusitako betebeharrak modu larrian edo/eta behin eta berriz ez betetzea. Ez-betetze larritzat edo/eta behin eta berriz errepikatutzat hartuko da Oinarri hauetan ezarritako betebeharrak bat behin baino gehiagotan ez betetzea; aurkeztutako datu, ziurtagiri, txosten eta/edo agirietako baten faltsutasuna edo faltsutzea; eta/edo Oinarri

hauen esparruan jasotako dirulaguntza osoa edo horren zati bat aurreikusitakoak ez diren helburuetara bideratzea.

- Dirulaguntzaren xedea Oinarri hauetan aurreikusitako moduan justifikatzeko betebeharra urratzea eta behar bezala ez justifikatzea.

- Onuradunaren jarduerari buruz egin daitezkeen egiaztapen eta ikuskapenei kontra egitea, aitzakiak eta eragozpenak jartzea edo uko egitea, baita kontabilitate, erregistro edo dokumentu betebeharrak ez betetzea ere, baldin eta horren ondorioz ezin bada egiaztatu jasotako ekarpenei emandako erabilera, finantzatutako jardueren errealitatea eta erregulartasuna, edo edozein administraziok edo erakundek helburu bererako emandako dirulaguntzak, laguntzak, diru sarrerak edo baliabideak eskuratzea, izan horiek publikoak edo pribatuak, estatukoak, Europar Batasunekoak edo nazioarteko erakundeetakoak.

- Jarduerak gehiegizko finantzaketa jaso badu, gainfinantzatutako zenbatekoan.

Aurrekoa kontuan izanik, dirulaguntza hauen onuradun izateko betekizunak une guztietan bete eta mantendu beharko dira. Bestela, Donostiako Sustapenak dirulaguntzak itzultzeko eskatu ahal izango du aurreko apartatuetan zehaztutako baldintzetan. Era berean, ez-betetze larrienen kasuetan, hala nola datuen faltsutasuna edo jasotako dirulaguntza –osorik edo zati batean– beste helburu baterako erabili izana, Donostiako Sustapena gaitu egingo da emandako dirulaguntza ezeztatzea erabakitzeke eta, hala badagokio, jasotako zenbateko guztiak itzultzea errekeritzeko, jasotako zenbatekoaren halako bostaren baliokidea den zenbateko bat ordaintzea hertsiki eskatzeaz gain.

Dirulaguntza itzuli beharko da eta Donostiako Sustapena SAK onuradunari jakinaraziko dio Oinarriotan ezarritako arazoiren bat gertatzen dela, jarraian deskribatutako baldintzetan.

Itzulketa egutegiko laurogeita hamar eguneko epean egin beharko da, Donostiako Sustapena SAK onuradunari artikulu honetan aurreikusitako itzulketa arazoiren bat dagoela burofax bidez jakinarazten dionetik zenbatzen hasita.

Era berean, eta aurreko apartatuetan ezarritakoaz gain, Donostiako Sustapena SAK beretzat gordetzen du Oinarri hauetan ezarritako betebeharretakoa bat utzikeriagatik bete ez duten edo beren jokabidearen ondorioz fede onaren oinarritzko arauak urratu dituzten pertsona fisiko edo juridikoei Sustapenak eskaintzen dituen beste dirulaguntza edo onura batzuk eskuratzeko aukera BI (2) URTEZ eragozteko eskubidea.

## 14. ARTIKULUA. DATU PERTSONALAK BABESTEIA

Datuak babesteko indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera, jakinarazten da emandako datuak Donostiako Udalak tratatuko dituela, tratamenduaren arduradun moduan, eta Donostiako Sustapena SAK informazioa kudeatuko du tratamenduaren eragile moduan.

Tratamenduaren helburua zure laguntzaren eskaera izapidetu eta kudeatzea da.

DBEOren 6.1.e) artikulua da tratamenduaren bidez kototasunaren oinarria: tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko: 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena; 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa; eta 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra.

Oinarri hauetan edo eskabide inprimakietan hala adierazten bada, datu pertsonalei buruz eskatzen den informazioa derrigorrez eman beharko da, eta datu okerrak emateak edo daturik ez emateak eskabidea kudeatzea eragotziko du.

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzen onuradunek emandako datu pertsonalak Estatuko edo nazioz gaindiko erakundeei laga ahal izango zaizkie, baldin eta laguntza horiek batera finantzatzen badituzte eta/edo Donostiako Sustapenarekin batera kudeatzen laguntzen badute, hori erabat beharrezkoa denean, eta emakida kudeatzeko soilik.

Era berean, jakinarazten da laguntzak emateak berekin ekarriko duela pertsona onuradunaren identifikazio datuak jakinaraztea edo lagatzea; izan ere, datu horiek, baita emandako laguntzaren zenbatekoa ere, Donostiako Sustapenaren webgunean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

Ez da aurreikusten datuen komunikazio gehiagorik, ezta datuen nazioarteko transferentziarik ere, legeak hala agintzen ez badu.

Tratamendu honen xede diren datu pertsonalak bildu diren helburua betetzeko eta helburuaren eta tratamenduaren ondorioz sor daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboraz gordeko dira. Artxiboari eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutakoa aplikatuko da.

Eragindako pertsonak datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubideak baliatu ahal izango dituzte hala dagokionean, baita datuak babesteko indarrean dagoen araudian ezarritako beste eskubide batzuk ere, Donostiako Udaleko Udalinfo zerbitzuaren bitartez: Easo kalea 41, 20006 Donostia.

Interesdunak bere eskubideak baliatzeko garaian behar bezalako arreta jaso ez badu, erreklamazio bat aurkeztu ahal izango du Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Helbidea: Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea 71, 3. solairua, 01008 Vitoria-Gasteiz. Hala ere, alde zuzenetik, datuen babeserako Donostiako ordezkariarekin harremanetan jartzeko aukera izango du: [dbo@donostia.eus](mailto:dbo@donostia.eus).

## 15. ARTIKULUA. AZKEN XEDAPENA

### Indarrean jartzea eta onartzea.

Oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarriko dira, eta bertan argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dira indarrean.

Eskaera aurkezteak Oinarriok erabat onartzen direla esan nahi du.

### Erantzukizunetik salbuestea.

Onuraduna izango da laguntzaren xede den jarduera egin aurreko edo ondorengo jarduketan ondorioz sortzen diren kalte pertsonal eta/edo materialen erantzule bakarra, eta Donostiako Sustapenak ez du inolako erantzukizunik izango kontzeptu horiengatik.

## 16. ARTIKULUA. ARAUBIDE JURIDIKOA

Ematen diren dirulaguntzek oinarri hauetan jasotako arauak beteko dituzte, eta, modu osagarrian, Dirulaguntzen Lege Orokorrean eta hura garatzeko erregelamenduan jasotakoaren arabera (erregelamendu hori uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartu zen), nahiz eta Dirulaguntzen Lege Orokorrean bildutako kudeaketa irizpideei eta lege horretako 20. artikulua bildutako informazio printzipioei dagokienez bakarrik izan –hori guztia lege horren 3.2 artikulua bigarren paragrafoa betez, hark ezartzen baitu aplikazio hori–.

Bestela, Dirulaguntzen Lege Orokorra eta hura garatzeko erregelamendua oinarriotan lege testu horien berariazko aipamena egiten denean bakarrik aplikatu beharko dira.

Donostian, sinatzen den datan.

**Iñigo Olaizola Arcaute**

Donostiako Sustapena SAren zuzendari kudeatzailea